

Hitzaurrea.

Colecciones privadas

Michelena Artes Gráficas enpresaren aldetik argitalpen honen hitzaurrea egiteko eskaintza atseginez hartzerakoan, zilegi bekit esatea, firma horri dagokionez, gogoan dudala beti zordun izango natzaien oparitxo baten oroitzen ahaztezina. Oroitzapen pertsonala da, barru-barrukoa eta bihotz-mamikoa, nire etxean gertaleku izan zuena, 2002ko abuztuaren lehen erdialdean, eta Felix Michelena eta Ierro hauen egilea haren lekuko izanik.

Michelena Artes Gráficas-ek, aurreko urteetan bete izandako jokaera arau egokiei leial egonik, nik dakidanez eta oroitzen naizenez, maila oneko lanak, dibulgazioaren alor zabalari dagozkionak argitaratuz, Colecciones Privadas izenburuko obra bat oparitzen digu oraingo aldian.

Hasteko esan beharrean nago argitalpen honen edukia bat datorrela erabat arte grafikoaren enpresa bati datzekion ardurarekin, zeren paper inprimatua bildumazaletasunaren ohiko mota sustraituenetariko bat baita, dela liburu, postal, kartel, zigilu, txartel edo liburuxka moduan.

Bildumazaletasuna, niretzat, zaletasun edo denbora-pasa bat baino gehixeago da, nahiz ez den «sendabide zaileko patologia psikiatrikoa» izatera iristen, Julian Armendarizek bere latorrizko jostailuak aurkezterakoan era umoretsuan adierazitakoa gorabehera. Baina bai bizitzaren aurreko jarrera bati erantzuten diola. Horregatik, gehienetan, jaidura hori duenak gauza desberdinak bidumatzen ditu, eta ez duenak ez du bildumarik egiten edo gutxi egiten du.

Mundu horretatik kanpo dauden pertsonak uste ohi dutenaren kontra, bilduma egitearen funtsa ez da gauzak pilatzea, era kuantitaboan eta amorfoan. Aitzitik, sormenezko egintza da. Norbaitek esana du, eta arrazoi osoz, zerbait koherente eraikitzen saiatzen den sortzailea dela bildumazaitzailea, eta lortzen duenean obra original baten egile sentitu daiteke. Arte Ederretan argi eta garbi antzematen den zerbait da hori. Bilduma handi guztiek ezaugarri berezia dute: Velazquez konposizioaz, marraz eta pintzelkadez ezagutzen den

bezala, era berean, bildumek, bikainak direnean, nortasun bereizgarria dute eta adituen begiek ezagutu ditzaketen ezaugarrien jabe dira.

Liburu honetan, jakina, bilduma xumeagoak, baina ez merezimendu guxtiagokoak, ditugu mintzagai. Hemen aurkezten zaizkigun bildumatzaileek karbera dute egiten dutenekiko, arteen munduko bildumatzaile historikoez izan zezaketen gustu beraren aurkikuntzak partekatu eta erakustearren.

Hemen hasten den liburuko gauzarik erakargarriena eta harrigarriena zera da, guregandik oso gertu dauden baina gehienontzat ezezagunak ezaizkigun bildumak ezagutu eta miresteko aukera ematen digula. "Beste kulturei" buruzko Indo-Forcada bildumak ikaragarritzko zirrara eragin digu.


Antropologoaren jakin-mina kitzikatu beharko du, nahitaez, Euskal Herriko elementu etnografikoen bilduma partikular onena Andoainen dagoela jakiteak, Andres Ayerberi esker (M. Rosa Ayerberen hitzaurrea). Edo Gipuzkoan ia 3.000 musika tresna desberdinek osaturiko bilduma bat egoteak, Jose Luis Loidi eta Lourdes Yarzak bildurikoa.

Cristobal Aldazabal tolosarrak bere Juguetes de colección delakoaren bidez eskainitako multzoa edertzen duten berunezko soldaduei erreparatzerakoan, haren beste herrikide bat, Ramon Labayen, bururatzen zitzaidan, motibo militar beraren ekoizpen zabal-famatuaren sortzailea. Eta tolosarrez ari garenez, Manuel Mocoeroa aipatuko dugu atseginez, hemen motor eta moto bildumatzaile nabarmen gisa agertzen zaiguna.

Azkenik, sinpatia besterik ezin sortu, latorrizko jostailu maitagarrien "patologia zoriontsuak" joa dela aitortzen duen Julian Armendariz bezalako batek, edo Jose Mari Lopez bezalako batek, kortxo-kentzekoen zientzian diplomatua, bere soilean bilakaerari ihes egin ezin izan dion eskuko tresnaren bildumatzailea, horren ezean egoera estuak sortzen direlarik, gure bizitzan denok inoiz edo behin nabaritu ahal izan dugunez.

Esandakoaz, interes desberdineko gaiak, aberastasun zabalekoak direla ikusten da, denak zorrotasun arretatsuz gauzatuak, eta hori da benetan baloratu beharrekoa gisa honetako ahalegin guztietan, gehiegitan aditu dugun latorrizko danborrak zabalduriko hots garratzetik guztiz urrun. Gainera, ohar gaitezen lan bakoitzak dakartzan kalitate oneko irudi ugariak funtsezko eran hobetzen dutela edukiaren aberastasun didaktikoa.

Amaitzeko, nire ezagutzarik zintzoena Michelena Artes Gráficas-en aldera, eta mila esker opari eder honengatik.



Prólogo / Hitzaurrea / Juan Garmendia Larrañaga.
– En: *Colecciones privadas*. – Donostia : Michelena
artes gráficas, 2007. – (Mono-grafías Michelena ;
15). – 252 p. : il. ; 21 cm. – ISBN: 978-84-612-
0994-1. – P. 10-12